HABE

Ebazpena, HABEren zuzendari nagusiarena, G26-214 Berariazko Administrazio Baldintzen Agirian hautemandako akatsa zuzentzekoa.

G26-214 Kontratazio-espedientearen Berariazko Administrazio Baldintzen Agirian akats materiala hautemanda, **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKOITZEAN ETA KONTRATAZIO PLATAFORMAN IGO EDO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOAri buruzko** 24. klausulako 3. zenbakian. Izan ere, izenburua ez dator bat agiri horren beraren 22 klausularen 2. Zenbakiarekin, ez eta Preskripzio tekniko partikularren agiriaren 8. zenbakiarekin.

Hala, horrekin oharturik, bidezkoa da akats hori zuzentzea, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz,

EBAZTEN DUT

Lehena. G26-214 kontratazio-espedientearen Berariazko Administrazio Baldintzen Agiriaren 24 klausulako 3. zenbakian segidakoa dio:

24.3.- "FORMULAK": ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA C2 EUSKARA GAITASUN MAILAREN ZIURTAGIRIA.

Segidakoa esan behar du:

24.3.- "FORMULAK": ESKAINTZA EKONOMIKOA

Bigarrena. Ebazpen hau Kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Donostian, sinadura elektronikoaren datan.

JOKIN AZKUE ARRASTOA - 15953171A

Firmado digitalmente por JOKIN AZKUE ARRASTOA - 15953171A
Fecha: 2025.12.16 15:07:05 +01'00'

Jokin Azkue Arrastoa

HABEren zuzendari nagusia